

ARRASATE BERGARAKO LURRALDEAREN ZATI KO PLANA (DEBAGOIENA)

BEHIN BETIKO ONARPENA

I. LIBURUKIA

- 1. DOK.: AZTERLANAK ETA INFORMAZIO PLANOAK

SUSTATZAILEA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL TERRITORIO
Y MEDIO AMBIENTE

EGILEAK:



TOLEDO TALDEA.
GRUPO de SERVICIOS URBANÍSTICOS y ARQUITECTURA.
ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA ZERBITZU TALDEA.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION DE GIPUZKOA
LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO PARA LA ORDENACION Y PROMOCION TERRITORIAL

2005eko apirila

ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATIKO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA

AURKIBIDE OROKORRA: 1. DOK. AZTERLANAK ETA INFORMAZIO PLANOAK

0.- SARRERA	4
I.- TALDE IDAZLEA.....	5
II.- SARRERA.....	6
I.- INFORMAZIOA. OINARRIZKO DATUAK	7
1.- INGURUNE FISIKOA.....	8
1.1.- EGOERA ETA ERREFERENTZIAK.....	8
1.2.- EZAUGARRI OROKORRAK.....	8
1.3.- INTERESEKO EREMUAK.....	9
1.4.- HARTZE AHALMENA.....	10
2.- DEMOGRAFIA. ADIERAZLE SOZIO-EKONOMIKOAK.....	10
ERANSKINA.- DEBAGOIENENKO EREMU FUNTZIONALAREN DIAGNOSTIKOKO ADIERAZLEAK. 12	
3.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK.....	13
3.1.- GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOAK.....	13
3.2.- HIDRAULIKA ETA ENERGIA.....	14
4.- EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK.....	15
5.- HIRIEN SISTEMA.....	15
5.1.- EGITURA ETA MAILAK.....	15
5.2.- PLANGINTZA. HIRI INGURUNEA.....	16
II.- INFORMAZIO PLANOAK	17
1.- INGURUNE FISIKOA.....	17
2.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK.....	17
3.- EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK.....	17
4.- HIRI INGURUNEA (BIZITEGI LURZORUAK ETA EKONOMIA JARDUERAKOAK). (UDAL PLAN-04 Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila).....	17

**ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA**

(DEBAGOIENA)

BEHIN BETIKO ONARPENA

**1. DOK.- AZTERLANAK ETA INFORMAZIO
PLANOAK**

ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA
(DEBAGOIENA)

BEHIN BETI KO ONARPENA

0.-S A R R E R A
I.- TALDE IDAZLEA
II.- SARRERA

I.- TALDE IDAZLEA

Lan honetan honakoek hartu dute parte:

➤ ZUZENDARITZA

- **EUSKO JAURLARITZA. / GOBIERNO VASCO**
LURRALDEANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE
- XABIN INTXAURRAGA MENDIBIL. Sailburua
- ABEL MUNIATEGI ELORZA. Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitateko sailburuordea



LURRALDE ANTOLAMENDUKO ZUZENDARIA
DIRECCIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO:
- MARTÍN ARREGUI SAN MIGUEL. Zuzendaria

TALDE TEKNIKOAK:

- JESUS MARÍA ERQUICIA OLACIREGUI. Arkitekto koordinatzailea
- PILAR MONJAS RUBIO. Arkitektoa
- JOSE RAMÓN VARELA BALENCIAGA. Arkitektoa
- TEODORO OLEA ITURREGI. Zuzenbidean lizentziatua



- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**
LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO PARA LA ORDENACIÓN Y PROMOCIÓN TERRITORIAL

LURRALDE ANTOLAKETARAKO ZUZENDARIA:/ DIRECCIÓN DE ORDENACIÓN TERRITORIAL:
- JOSE RAMÓN IZKEAGA ZINKUNEGI. Zuzendaria.

TALDE TEKNIKOAK:

- MAITE CELAYA ERRAZU. Arkitekto koordinatzailea.
- JOSEBA LARZABAL GOIZUETA. Arkitektoa
- MAITE IRIBARREN GOICOECHEANDIA. Zuzenbidean lizentziatua



➤ LAGUNTZA TEKNIKOAK

• ZUZENDARIA

- JOSE MIGUEL TOLEDO ETXEPARE.- Arkitektoa
- JAVIER AZPILLAGA ZUAZUA (koordinatzailea).- Arkitekto teknikoa. Lurraldearen antolamendu eta ingurumeneko masterra

• LAGUNTZAILE NAGUSIAK

- JAVIER REGUERA ARDANZA.- Arkitektoa
- CRISTINA ZARRABEITIA PEÑALBA.- Arkitektoa

• OINARRIZKO LAN-TALDEA

- MARÍA LASA BELLOSO.- Arkitektoa
- NIKOLAS BARANDIARÁN CONTRERAS.- Arkitekturako ikaslea
- EDURNE GOYA CARACCILO.- Dok. grafikoa
- JUAN GURRUCHAGA LINKEL.- Dok. grafikoa
- UXUE AZPIROZ AZPIROZ.- Testua eta konposizioa

• LURRALDEA ETA INGURUMENA

- CARMEN SEGUROLA LÁZARO.- Geografoa. Lurraldearen antolamendu eta ingurumeneko masterra.
- ANTONIO BEA (EKOS).- Biologian doktorea.

II.- SARRERA

Arrasate Bergarako Lurraldearen Zatiko Planaren lehen dokumentu honen bidez, lan honetan interesa duten guztiek Debagoieneko eremu funtzionalaren ezaugarriak ezagut ditzaten lortu nahi da (lurralde, hirigintza, gizarte eta ekonomiaren arloko ezaugarrietara). Kontuan izan behar da Debagoieneko eremu funtzionalaren mugapena Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezartzen dela.

Planaren esparrua tarteko mailako lurralde-plangintza idazteko komeni diren hamabost eremu egokietako bat da. Izatez, xede horretarako baliagarritzat jotzen dira mugapen horiek; ez dute beste maila administratiborik sortzen, ez da beste xede batzuetarako baliagarria den merkaturatze-eskemarik deuseztatzen. Kasu horretan, gainera, mugapen hori guztiz bat dator eskualdearen ohiko mugapenarekin, hau da, laurogeiko hamarkadaz geroztik Debagoieneko Mankomunitateak duen mugapenarekin. Kontuan izan behar dugu Debagoieneko Mankomunitatea dugula eskualdearen lurralde-arloko analisi eta koordinaziorako zereginetan jardun duen organo administratiboa.

Lurralde-“tradizio” horri esker, komunikazio hobea izan da Lurraldearen Zatiko Plan hau idatzi duen taldearen eta eremu-funtzionala osatzen duten udalerrri guztien artean.

Laburpen honen ondorio gisa eta goraxeago aditzera emandakoari jarraituz, lanaren izenean eutsi egin zaio Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan finkatutako izenari; alabaina, azpi-izenburuan eskualdearen izena gaineratu zaio, Plana identifikatuko duen elementu gisa.

**ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA**

I.- INFORMAZIOA. OINARRIZKO DATUAK

1.- INGURUNE FISIKOA

1.1.- EGOERA ETA ERREFERENTZIAK

Arrasate Bergarako eremu funtzionala honako bederatzi udalerrri hauek osatzen dute: Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagozkion Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati, eta Arabako Lurralde Historikoko Aramaio.

421,7 km²-ko azalerarekin, Euskal Autonomia Erkidegoaren zentro geografikoan dago, eta honako muga hauek ditu: Iparraldean, Debagoieneko eremu funtzionala eta Urola-Kostako eremu funtzionala; Hegoaldean, Araba Erdialdeko eremu funtzionala; Ekialdean, Goierriko eremu funtzionala; eta Mendebaldean, Durangaldeko eremu funtzionala.

Bere perimetroan kokatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoen elkargunea (Besaideko enklabea).

Proposamenetako batzuk zehazteko, eremu funtzionalean hiru lurralde-esparru homogeen bereizi dira. Bergaraldea (Bergara, Antzuola eta Elgeta), Deba ibaiaren beheko eginez eta Antzuola (Deskarga) eta Uberako ibaiadarrekin bat egiten duen inguruan. Oñatialea (Oñati), Oñati ibaiaren ibarra oso-osorik hartzen du, eta bertan Udana, Arantzazu eta Urkuluko isurialdeak barne hartzen dira. Eta, azkenik, Leintz Bailara izeneko esparrua (Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga), hau da, Deba ibaiaren goi-ibilgua, Aramaioko ibarra (isurialde kantauriarra) eta Aramaioko udalerraren mende dauden Olaeta eta Albinako arroak (isurialde mediterraniarra).

1.2.- EZAUGARRI OROKORRAK

Debagoieneko eremu funtzionalerako klima domeinu epel-berokoa da, 4-10°C artean hil hotzean eta 18-20°C artean hil beroan. Prezipitazioak 1.300 – 1.700 mm artekoak dira.

Esparruko batez besteko altuera ez da oso handia, Arabako Erdialdeko eremu funtzionalarekin muga egiten duen hegoaldeko mugan izan ezik (Aizkorri eta Elgeako mendizerretan), bertan batez besteko altuera 1.300-1.000 mm-koa baita. Era berean, mendebaldeko mugan (Udalaitz-Urkiola) 1.000-1.150 mm-ko batez besteko altuerara heltzen da, eta muga bereziak sortzen ditu Durangaldeko eremu funtzionalarekin.

Aramaioko udalerrria, bestalde, Arabako Lautadaren aurreko lurretara (isurialde mediterraniarra), Olaetara eta "El Limitado" gisa ezagutzen den eremura zabaltzen da. Aramaio eta Deba ibaiaren haranen arteko lotura naturala den Kurutzetako gainaren alde batera Jarindoko gailurra dugu esparru horren muga, eta, beste aldera, Santikurutz eta Orisol gailurrak.

Eskualdea Deba ibaiaren haranaren goialdean zehar egituratzen da. Deba ibaiaren harana Gipuzkoako Lurralde Historikoaren bereizgarri diren isurialde atlantiarreko lau haranen arteko bat da, mendebaldeen dagoena hain zuzen ere. Gainera, esparru honetan bat egiten dute EAEko hiru Lurralde Historikoek (Besaiden).

Arlaban gainaren inguruetan (ur-banalerroa) sortzen den Deba ibaiaren harana Arabako Lautadatik (errege-bidea) kostalderako (Europako bidea) sarbide naturala da.

Hidrologikoki, Deba ibaiak eta bere ibaiadar diren Aramaio eta Oñati-Arantzazu ibaiak egituratzen dute lurraldea. Aramaio ibaiak ezkerretatik bideratuta Arrasaten bat egiten du Deba ibaiarekin eta Oñati-Arantzazu ibaiak eskuinaldetik bideratzen da, eta, Oñatiko ibarra osatu ostean, Elorregin (S. Prudentzion) egiten du bat Deba ibaiarekin.

Hegoaldeko lurralde mugakideetarako (Arabarako) aipatutako pasabideez gain (Kurutzeta eta Arlaban), Deba ibaiaren harana Urola Garaiarekin ere lotzen da, Elosua, Deskarga eta Udanako mendateen bitartez, baita Debarrena eta Durangaldearekin ere, Karabieta, Elgeta eta Kanpazar mendateen bitartez.

Lurraldearen gehiena Behe Kretazeo Aptiar, Albiar eta Cenomaniarrekoa den arren, Bergarako lurraldearen erdia baino gehiago eta Elgeta eta Antzuola udalerrien gehiena Goi Kretazeokoa da eta basalto-azaleramenduak agertzen dira.

1.3.- INTERESEKO EREMUAK

Eremu funtzional honetan Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan proposatzen diren Urkiola eta Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalerako zatiak barne hartzen dira. Badira interes naturalistiko handia duten beste eremu batzuk, hala nola Aramaion dagoen Albinagoiko pagadia –Urkiolako Parke Naturalaren zabalpen gisa–, Udalaiz mendigunea, Karakate-Irurutzeta-Agerre buru gailurrak (Bergara, Antzuola), eta Gorostiaga mendiko zati txiki bat, Legazpiko udalerrian Goierriko eremu funtzionalarekin muga egiten duena.

Lurraldeak geomorfologia nabarmena du, eta Gipuzkoako lurralde historikoko bereizgarri diren erabilera eta kokalekuko baldintzen bipolarizazioa ageri du. Haranetan biltzen dira bizitegi-erabilera eta ekonomia-jardueretako ia erabilera guztiak, ondorioz haranak guztiz aseta daude. Mendialdea, aitzitik, lehen sektoreko jarduerekin lotzen da, Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako hirigune estrategiko historikoak izan ezik.

1. planoari dagokion dokumentu grafikoan zehatz-mehatz deskribatzen dira esparru honetako ingurune fisikoaren ezaugarriak.

1.4.- HARTZE AHALMENA

Eremu funtzionalen ikuspuntutik, lurraldea Arrasate eta Bergarako hiriguneen inguruan polarizatu bada ere, gure iritziz egitura-aldetik eskualdea egokiago osatzen da aurrekoei Oñatiko gunea-harana gaineratzen badiegu.

Birmoldatzeko ahalegin zehatz batzuk eginez gero, sortzen den multzoak ahalmen handia du azpiegitura eta garraioko elementuak bertan kokatzeko eta garatzeko. Osotasunak homogenotasuna izan dezan lortu nahi da, beste maila batean EAEn eta hiru hiriburuen eurohiriaren bitartez lortu nahi denaren antzera.

Lurraldearen gainerakoak produktzio baso-erabilerarako joera nabarmena du, baita kontserbazio aktiboko erabilerarako joera ere eremuko hegoaldean, hau da, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaion.

2.- DEMOGRAFIA. ADIERAZLE SOZIO-EKONOMIKOAK

Arrasate Bergarako eremu funtzionalak eremu gazte baten ezaugarri demografikoak ditu; izan ere, eremu funtzional honen dinamika demografikoak oso igoera handiak islatzen ditu 1950-1970 aldian, gero 1970-1981 aldian joera aldatu egin zen eta 1981-1991 aldian atzeraka egin du. 1991-2001 aldi honetan ere joera hori nagusitzen ari da.

Populazioa. Oinarri estatistikoa.

	1991	1996	2001
Eremu funtzionala	66.419	64.907	63.476
Gipuzkoako LH	----	676.208	673.563
EAE	2.104.041	----	2.082.587

Joera hori, ordea, ez dator bat inguruko enpresa-dinamika handiarekin eta enplegu-ahalmenarekin. Desoreka nabarmena dago biztanleen eta ez-biztanleen fluxuetan enpleguari dagokionez. Izatez, bertako 3.000 lanpostu inguru eremu funtzionalean bizi ez diren langileek betetzen dituzte.

Hazkunde begetatiboak atzerako joera bera jarraitzen du, 1981 eta 1986 artean tasa %5,7tik %2,9ra jaitsi zen.

Biztanleria gaztetzat har daiteke oraindik ere, biztanleriaren %29,6k ez baitu 20 urte bete. Haatik, 1981. urtearen erreferentzia hartzen badugu, kopuru hori asko jaitsi da. 65 urtetik gorako biztanleak, berriz, guztizko biztanleen %10 inguru dira.

Krisialdi demografiko hori argi eta garbi islatzen da biztanle-kopuruan antzematen den beherakadan. Bertan bizi ziren batzuk joan egin dira –agian beren sorterrira itzuli diren etorkinak–, eta horixe izan daiteke Arrasate Bergarako eremu funtzionalean biztanle-kopurua gutxitzeko dinamika horren arrazoia.

Biztanleria aktiboaren kopurua igo egin da azken urte hauetan; 1986. urtean 100 pertsonatik 41 aktibotzat hartzen ziren.

Bertako lan-egiturari dagokionez, egoera sozio-ekonomikoaren kalifikazioa “ertain-txikia” da.

Ikasketa-maila “ertain-handi” gisa kalifikatuta duen Gipuzkoako eremu bakarra da, eta hori okupatuta egon daitekeen biztanleriaren gaitasun eta malgutasunerako garrantzi handia duen alderdia da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren batez besteko biztanleria-dentsitatearekin alderatuta (157,5 bizt./Km²), dentsitate txiki samarra du eremu funtzional honek, azken 35 urte hauetan bikoiztu den arren.

Horrez gain, bertako biztanleria egoki banatuta dago bertako espazioan; izatez, desoreka-indizea neurritzkoa da (0,661) Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunarenarekin alderatuta (0,903).

Azkenik, nabarmendu behar da azken bost urteotan lurralde-desorekaren mailak beheranzko joera hartu duela.

ERANSKINA.- DEBAGOIENENKO EREMU FUNTZIONALAREN
DIAGNOSTIKOKO ADIERAZLEAK.

Sustatzailea: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta
Ingurumen Saila

Laguntza teknikoa: - Prospertiker
- Taller de Ideas

3.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK

3.1.- GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOAK

Eremu funtzional honetako biztanleria oso hirigune gutxitan biltzen da, eta hirigune horiek nahikoa ondo lotuta daude errepide-sarearen bitartez. Eremu funtzionaleko errepide-sareak bi ardatz nagusi ditu: GI-627 errepidea, Iparralde-Hegoalde norabidean, eta GI-632 errepidea, Ekialde-Mendebalde norabidean. Lehena, Gasteiz eta Donostia arteko lotura naturala da, eta egiten ari den A-1 autobidearen etorkizuneko trazadura da. Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza zeharkatzen ditu. Bigarrena, Bilbo N-I errepidearekin eta Iruñearekin lotzeko komunikazio naturala da Ekialde-Mendebalde norabidean, eta Durango, Bergara eta Beasain zeharkatzen ditu. Bi errepide horiek EAEko errepideen sareko sare laranjaren edo oinarrizko sarearen parte dira.

Honako errepideek osatzen dute eremu funtzional honetako errepide-sarea: Arrasate eta Aramaio lotzen dituen GI-3.553 errepidea, Oñati aipatutako GI-627 eta GI-632 oinarrizko errepideekin lotzen dituen GI-2.630 errepidea, eta tokiko errepideek. Azken horietako batzuk garrantzi handikoak dira, Bergara – Elgeta – Elorrio lotzen dituen GI-2.632 errepidea eta Kanpazar – Elgeta – Eibar lotzen dituen GI-2.634 errepidea esate baterako.

Eremu honetara heltzeko sarbideak txarrak dira, eta Bilbo eta Donostiarekiko loturak A-8 autobidearen mende daude.

Eguneko batez besteko intentsitatea GI-627 errepidean 5.800 eta 7.600 ibilgailukoa da Bergaran eta Soraluzen, hurrenez hurren –errepide hau E mailan dago–. Bestalde, GI-632 errepidean eguneko batez beste 9.000 ibilgailu ibiltzen dira Bergaran eta 8.000 ibilgailu Deskargako mendatean –errepide horrek duen garrantziaren lekuko (F maila)–. Errepide horren zabalera 7 metrokoa den arren, bertan batez beste lortzen den abiadura ez da orduko 50 km-tik gorakoa.

Hori dela eta, eremu funtzionalaren diagnostiko argia egin daiteke: errepide-sarea ondo egituratuta dago, baina bide-zorua eta trazadura ez dira behar bezalakoak. Ezinbestekoa da Arrasate, Oñati eta Elgetako zeharbideak egitea, eta Arrasate eta Eibar arteko errepidea (Kanpazar mendatea) eta Bergara eta Azkoitia arteko kualitatiboki hobetzea.

Eremu funtzionalak ez du errepidean zeharrekoa ez den bestelako garraiorik eta Transportes PESA enpresa emakidadunarekin negoziatzen diren zerbitzuen baldintzen mende dago.

3.2.- HIDRAULIKA ETA ENERGIA

Eremu funtzional hau bat dator, geografikoki, Debagoienarekin, 6. arroan.

Eremu funtzional osoko ur-horniduraren kudeaketa udalaz gaindikoa da (Gipuzkoako Ur Kontsorzioa), eta Urkulu I urtegian biltzen diren lur gaineko urak erabiltzen dira.

Debagoieneko arro honetan, Euskal Plan Hidrologikoaren alternatibetako batek (III. Txostena) Oñatiko udalerrian beste urtegi bat eraikitze aukera aztertzen zuen, Urkulu II. Urtegi horrek Araotz-Arantzazu ibaietatik eramandako urak bilduko lituzke eta Nerbioi-Zadorrako sistema integratuan gaur egun dauden premiak bikoiztuko lituzketen baliabideak biltzeko aukera emango luke.

Oro har, hondakin urak, hirikoak zein industriakoak, zuzenean isurtzen dira Deba ibaira eta bere ibai-adarretara, inolako arazketarik gabe.

Laster, Epelen ur zikinen araztegia eraikitze lanei emango zaie hasiera. Hondakinen hodi biltzailea zenbait tartetan eginda dago.

Gas naturala banatzeko sarea zabaldua dago eta, hala, ia eremu funtzional osoan erabil daiteke gas naturala. Antzuola, Elgeta, Leintz Gatzaga eta Aramaion soilik falta da zerbitzu hori zabaltzea. Dena den, Elgetako Udalak bere hirigunean gas propanoa erabiltzeko instalazioa egin du.

Energia elektrikoa garraiatzeko 380 Kv-ko garraio-linea eraikitzea aurreikusi da (Güeñes-Itxaso), linea horrek Ekialdetik Mendebaldera zeharkatuko du eremu funtzionala.

Energia elektrikoaren kontsumoari dagokionez, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruaren barruan, eremu funtzionalak laugarren postua du biztanle bakoitzeko kontsumoan, eta seigarren postua kontsumoaren guztizkoan.

Energia alternatiboen arloan, berriz, gaur egun industria handitan baterako sorkuntzari buruzko zenbait azterlan dago. Bestalde, eremu funtzionalean hamar zentral hidrauliko txiki daude, eta hamar zentraletan guztira 5.200 Kw-eko potentzia lortzen da.

Berriki, Elgeako mendiguneko parke eolikoko instalazioak garatu dira, eta instalazio horren zati batek eremu funtzionala hartzen du.

4.- EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

Debagoieneko eremu funtzionalak ekipamendu-maila ertaina du gaur egun (eskualdearen mailaren mende dago). Hala ere, eremu funtzionalaren beraren maila gainditzen duten zenbait elementu eta instalazio zehatz ditu, hala nola duela gutxi sortu den eta garapen-fasean dagoen Mondragon Unibertsitateari lotzen zaizkion ikastegiak.

Lehentxeago aditzera eman dugun moduan, esparru honetan Urkiolako Natura Parkearen zati bat barne hartzen da, eta Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalak natura-espazio handia hartuko du esparru honetan. Dokumentu honen 3. planoan elementu horiek guztiak eta gaur egungo hiri-inguruko parkeak zerrendatzen dira.

5.- HIRIEN SISTEMA

5.1.- EGITURA ETA MAILAK

Lurralde, funtsean, Deba ibaiaren goi-ibilguan zehar egituratuta dago. Eremu funtzionala osatzen duten udalerriak Gipuzkoako probintziakoak dira, Aramaio izan ezik, udalerri hori Arabako probintziako baita.

Eremu funtzionala osatzen duten udalerriak bi hiri-eremuren inguruan polarizatzen dira: Arrasate, 32,7ko tamaina funtzionala duena, eta Bergara, 20koa duena. Hala ere, eremu funtzionalean garrantzi handiko beste hirigune batzuk ere badaude, hala nola Oñati, 14,8ko tamaina funtzionala duena, Aretxabaleta, 5,3koa duena, eta Eskoriatza, 4,1koa duena.

Arrasate Euskal Autonomia Erkidegoko hirien sistemaren hierarkian 3. mailan dagoen hirigune bat da. Bergara 4. mailakoa da, eta Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatza 5. mailakoak dira. 3 eta 4. mailako hiriekin eremu funtzionalean duten banaketak egokia dirudi.

Bergarak tamaina funtzional handia duenez gero, hirigune horrek Elgeta eta Antzuola polarizatzen ditu, eta Bergarako azpieremu funtzionalaren burutza bihurtzen da. Eremu funtzionaleko gainerako udalerriak, berriz, Arrasateren inguruan biltzen dira. Hirigune horrek tamaina funtzional handia du eta erakarpen-ahalmen handia du; hori dela-eta, Debagoieneko eremu funtzionalaren burutza bihurtzen da. Eskema osatzeko, kontuan izan behar dugu Oñatik tamaina funtzional handiegia ez badu ere, ahalmen funtzional handia gaineratzen diela beste bi burutzei.

Dimentsio txiki samarreko espazio geografiko honetan 3 eta 4. mailako bi hirigune daude (Arrasate eta Bergara) eta, hala, erabat baztertzeko eremu funtzional honetan eremu ahulen bat egotea.

Aitzitik, eremu tenkatuak ageri dira Antzuolan eta, batez ere, Elgetan. Bi eremu

horiek eragin gurutzatuak dituzte, lehen kasuan Bergararen eta Zumarragaren eragina, eta bigarren kasuan Eibarrena eta Bergararena. Haatik, bi kasuetan polaritaterik indartsuena Bergararena da.

Elorriorengan, berriz, Durangok eta Arrasatek dute eragina; alabaina, Bizkaiko udalerrri horrek Durangorekin lotura estuagoa duela ematen du.

Eremu funtzionala, osotasunean, eremu tenkatua da, EAEko hiru hiriburuen eraginpean dagoen eremu bat da; izan ere, hiriburuetakako bakoitzak eremu funtzionalaren zati jakin batean du eragina.

Bilbao	Elgeta	Bergaraldea	Antzuola	Donostia
Gasteiz	_____	Oñatialdea	_____	Donostia
Gasteiz	Aramaiona Gatzaga Eskoriatza	Leintz-bailara	Aretxabaleta Arrasate	Bilbao

5.2.- PLANGINTZA. HIRI INGURUNEA.

Plangintza Orokorren mailan, honako egoeran dago gaur egun eremu funtzionala:

Udalerria	DATU OROKORRAK			PLANGINTZA DOKUMENTUA				
	Azal. Km ²	Biztanleria	Tasa	INDARREAN		BIDERATZEN		
				Irudia	Data	Irudia	Egoera	Data
ANTZUOLA	27,7	1.899	-1,91	Arau Subs. b) mota	03-09-26	---	---	---
ARAMAIO	73,8	1.466	9,08	Arau Subs. b) mota	96-03-06	---	---	---
ARETXABAETA	29,1	6.184	4,20	Arau Subs. b) mota	01-05-21	---	---	---
ARRASATE	34,3	23.118	-5,92	Hiri Antol. Plan Or.	03-06-10	---	---	---
BERGARA	77,1	14.965	-2,13	Arau Subs. b) mota	02-03-13	---	---	---
ELGETA	16,9	974	-0,81	Arau Subs. b) mota	04-02-13	---	---	---
ESKORIATZA	40,4	3.925	-1,75	Arau Subs. b) mota	00-02-29	---	---	---
LEINTZ GATZAGA	14,7	240	-3,61	Arau Subs. a) mota	87-07-23	---	---	---
OÑATI	108,2	10.705	1,31	Arau Subs. b) mota	97-09-17	Arau Su. b) mota	AU*	01-10-03

* Urte honetan hasiera batean eta behin-behineko onartu da.

Dokumentu honen 4. planoan, gaur egun udalerrri guztietan indarrean dagoen plangintzaren eremu-datuak gaineratzen dira.

ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA

II.-INFORMAZIO PLANOAK

- 1.- **INGURUNE FISIKOA**
- 2.- **AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK**
- 3.- **EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK**
- 4.- **HIRI INGURUNEA (BIZITEGI LURZORUAK
ETA EKONOMIA JARDUERAKOAK).
(UDAL PLAN-04 Eusko Jaurlaritzako
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila)**